



<b>SAILA</b>	GARAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA, MERKATARITZA, TURISMOA ETA AZOKAK
<b>XEDEA</b>	ORDENANTZAREN ALDAKETA
<b>ESPEDIENTEA</b>	2024IORD0002

## IRAGARKIA

### Tolosako udalerrian kale-salmenta arautzen duen ordenantza aldatu aurreko kontsulta publikoa

#### AURREKARIAK

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, VI. Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala, eta berritasun batzuk ditu aurreko erregulazioaren aldean, helburu nagusia izanik herritarren parte-hartzea areagotzea arauak lantzeko prozeduretan.

Hartara, 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontsulta publikoa egin behar da araudi-proiektu bat prestatu aurretik. Honako hau dio aipatutako artikulua:

*133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.*

*1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:*

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauaren helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.*

Oraingo honetan, Tolosako Udalaren asmoa da Tolosako udalerrian Kale-salmenta arautzen duen Ordenantzaren aldaketa egitea, eta, legeak ezarritakoa betez, alde aurreko kontsulta publikoa egingo du, Ordenantza aldatu eta onartu aurretik.

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek parte hartu ahal izango dute, hala iritzi gero, eta ekarpenak egin, Tolosako Udalaren Erregistroan aurkeztuta; herritar fisikoen kasuan, aurrez aurre edo modu telematikoan, eta pertsona juridikoen kasuan, modu telematikoan.

Horretarako, 20 egun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.



## **EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK**

Tolosako udalerrian Kale-salmenta arautzen duen Ordenantza 2003ko irailaren 30ean eman zen argitara Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Indarrean sartu zenetik zenbait arau-aldaketa egin dira, eta, ondorioz, eguneratu egin behar da. Baita urteotan guztiotan hauteman diren arazoak konpontzeko ere.

Hauek dira zehazki ordenantzaren aldaketarekin konpondu nahi diren arazoak:

- Administrazio elektronikoaren arloko eskakizunetara egokitzeko beharra.
- Merkataritza-banaketari, elikagaien salmentari eta kontsumitzaileen eskubideei buruzko araudi berria jasotzeko beharra.
- Egokitzeko beharra, gero eta postu puntual gehiago jarri eta merkatu gehiago antolatzen baitituzte norbanakoek eta erakunde pribatuek.
- Indarrean dagoen ordenantzak merkatuak antolatzeko eta postuak muntatzeko zenbait espazio jasotzen ditu, egun, oinezkoen zein ibilgailuen zirkulazioa dela-eta erabiltzen ez direnak. Leku horien ordezkari beste espazio batzuk erabili ohi dira orain, bereziki, azoka bereziak egiten diren egunetan.
- Soberan daudelakoan, ezabatu egin nahi dira indarrean dauden Ordenantzak jasotzen dituen hainbat alderdi: hala nola, eranskinak, azoka gune guztietako arauak testu nagusi eta bakarrera ekarriz. Era berean, terminologia sinplifikatu nahi da, ordenantza ulergarriago eginez.

## **ORDENANTZA ONESTEAREN BEHARREZKOTASUNA ETA EGOKITASUNA**

Beharrezkoa eta egokia da araua onestea, berau eguneratzeko administrazio elektronikoari buruzko arau-eskakizunei dagokienez, azken urteotan Tolosako kaleko salmentak kokapenari dagokionez izan duen bilakaera egoki jaso dezan, eta, oraintsuko hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioei eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzei buruzko Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 30eko 51/2024 Dekretuak ezarritako baldintzak eguneratzeko.

## **ARAUAREN HELBURUA**

Arauaren helburua bikoitza da. Alde batetik, eguneratu egin nahi da (elikagaiei eta kontsumoari buruzko legeriara egokitu, postuen kokapena eta esleipenerako dokumentazioa eta baimenen epea berrikusi, esate baterako), eta, bestetik, Udalak ez, baizik eta beste pertsona eta erakunde batzuek antolatu asmo duten kaleko salmenta ordenatu nahi da.



TOLOSAKO  
UDALA

## IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

Ez dago bestelako konponbide erregulatzailerik ez eta ez-erregulatzailerik ere, eta, ondorioz, beharrezkoa da indarrean dagoen ordenantza ordezte, kaleko salmentak azken urteetan izan duen bilakaerari erantzun diezaion Tolosako Udalak, udal-araudia eta baimenen prozedura egungo errealitatera egokituta.

Tolosan, 2024ko irailaren 11n.

Aitor Agirresarobe Murgi  
Herritarrek Lan-Esparruko zinegotzi delegatua



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IORD0002-Iragarkia/Anuncio (TOLOSAKO UDALA)